

2024ko Berrikuntza eta Inbertsio Aurreratua Sustatzeko 2i Plana

Helburua (1. oinarria)	Bizkaiko enpresen gaitasuna handitzea, modu jasangarrian eta inguruarekin integratuta, lehiatzeko, berritzeko eta teknologikoki aurreratua diren inbertsioak egiteko.																
Erakunde onuradunak (3. oinarria)	Bizkaiko enpresek, jarduera nagusia hauetariko bat badute: industria, eraikuntza, garraioa, industriari lotutako zerbitzuak, turismoa eta handizkako merkataritza (I. eranskinean ageri diren arabera) hurrengo baldintzak betetzen badituzte: <ul style="list-style-type: none">Bizkaiko Lurralde Historikoan sozietatearen helbidea eta zerga-helbidea lurralde horretan izatea.Gutxienez ekoizpen zentro bat, edo balio erantsi handiko zentro bat Bizkaiko LHan izatea.5 eta 100 pertsona arteko plantilla edukitzea.Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak dirulaguntzak itzultzearen ondoriozkoak eguneratuta edukitzea.Sexu arrazoiengatik diskriminazioaren bat gauzatzeagatik zigortuta ez egotea.																
Diruz lagundu daitekeen egitatea (4. oinarria)	Erakunde eskatzailearen lehiakortasuna hobetzeko jarduketak, bai berrikuntza teknologikoko zein ez teknologikoko proiektuen bidez, erakundearen edozein eremutan (prozesua, produktua, antolaketa, parte-hartzea, merkatua, jabetzaren babesa...), bai erakundearen negozio-ereduarekin koherenteak diren eta inpaktu handia duten inbertsio aurreratuen bidez.																
Dirulaguntza jaso dezaketan gastuak (5. oinarria)	<ul style="list-style-type: none">Proiektuari zuzenean lotuta dauden kanpoko gastuak, diruz lagundu ezin diren gastutzat jotakoak izan ezik.Proiektuan diharduen langileriaren barruko gastuak, proiektuak dirauen bitartean proiektuan emandako lanari dagozkionak.Kontabilitate Plan Orokorraren 206, 212, 213, 215 eta 217 kategorietan eginiko ibilgetuko inbertsioak, enpresaren lehia-posizioa nabarmen hobetuko dutenak eta teknologikoki aurreratua direnak.																
Laguntzen zenbatekoa (6. oinarria)	<table><thead><tr><th>Puntuak/Kategoria</th><th>Kanpoko gastuak</th><th>Aktibo finkoetako inbertsioa</th><th>Barneko langileria-gastuak</th></tr></thead><tbody><tr><td>35-60 puntuak</td><td>30%</td><td>8%</td><td>30%</td></tr><tr><td>>60 puntuak</td><td>40%</td><td>15%</td><td>40%</td></tr></tbody></table> <table><thead><tr><th>Laguntzaren gehieneko zenbatekoa</th><th>Laguntzaren gehieneko zenbatekoa barneko gastuengatik</th></tr></thead><tbody><tr><td>120.000 €</td><td>25.000 €</td></tr></tbody></table> <p>Ez da 6.000 eurotik beherako dirulaguntzarik emango.</p>	Puntuak/Kategoria	Kanpoko gastuak	Aktibo finkoetako inbertsioa	Barneko langileria-gastuak	35-60 puntuak	30%	8%	30%	>60 puntuak	40%	15%	40%	Laguntzaren gehieneko zenbatekoa	Laguntzaren gehieneko zenbatekoa barneko gastuengatik	120.000 €	25.000 €
Puntuak/Kategoria	Kanpoko gastuak	Aktibo finkoetako inbertsioa	Barneko langileria-gastuak														
35-60 puntuak	30%	8%	30%														
>60 puntuak	40%	15%	40%														
Laguntzaren gehieneko zenbatekoa	Laguntzaren gehieneko zenbatekoa barneko gastuengatik																
120.000 €	25.000 €																
Arautegia eta emakida prozedura (20. oinarria)	5/2024 Foru Dekretua, urtarrilaren 18koa (BAO 14zk. 2024ko urtarrilaren 19ekoa) Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da.																
Epeak (29. eta 30. oinarriak)	Dirulaguntza jasotzen duten proiektuak: 2023ko urtarrilaren 1etik 2025ko ekainaren 30era bitarteko epearen barruan hasi eta bukatu behar dira. Eskabideak aurkezteko epea: 2024ko martxoaren 4ko 8:30etatik 2024ko martxoaren 22ko 13:30etara, Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez (www.bizkaia.eus/sustapena-BulegoBirtuala). Horretarako sinadura elektronikoa izan beharko duzu (Izenpe, ONA, NAN elektronikoa, ...), edo B@kQ ziurtagiri elektronikoa erabiltzea; ziurtagiri hau Orueta Apezpikuaren kaleko 6.ean eska daiteke.																